

OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKADIKO KULTURA  
ETA SORMEN BARRUTIRAKO (BDCC)  
AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUA  
KONTRATATZEKO. EUSKADIKO JAKINTZA  
INDUSTRIEN ETA TEKNOLOGIA APLIKATUEN  
KLUSTERRAREN (GAIA) BARRUAN DAGO ERAKUNDE  
HORI

## AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b> .....	2
1.XEDEA .....	3
2.ZERBITZUAREN IRISMENA .....	4
3.KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK .....	8
4.METODOLOGIA .....	9
5.BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK .....	12
6.GAUZATZEKO EPEA .....	13
7.ZERBITZUAREN JARRAIPENA.....	13
8.KONFIDENTZIALTASUNA .....	14
9.BALDINTZA EKONOMIKOAK.....	15
10.ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.....	18
11.ESKAINTZARI BURUZKO KONTSULTAK .....	19

## 1. XEDEA

Baldintza-agiri honen xedea da hainbat enpresa aukeratzea GAIA KLUSTERRARI (BDCC proiektuan) lehenetsitako premia-eremuetan aholkularitza-zerbitzu aditua aurkeztu diezaioten KSI Kultura eta Sormen Industrietako profesionalentzat. BDCC proiektua GAIA KLUSTERREAN dago, eta kluster hori da baldintza-agiri honen erakunde kontratatzailea. Hemendik aurrera, BDCC edo BDCC taldea aipatzen denean, GAIA KLUSTERRA erakunde kontratatzailearen proiektua dela ulertuko da.

Baldintza-agiri honen xedea da EAEko KSI Kultura eta Sormen Industrietako enpresei eta profesionaleri aholkularitza ematea premia-eremu guztietan. AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUA kontratatuko da (ARRETA EREDUAREN 2. MAILA) GAIA KLUSTERRETIK bideratzen diren Euskadiko KSItako enpresentzat eta profesionalentzat.

Informazio gehiago nahi izanez gero: GAIAREN webgunea

## 2. ZERBITZUAREN IRISMENA

Aurreko ataletan adierazitakoaren arabera, asmoa da aholkularitza aditua emateko zerbitzua kontratatzea Euskadiko KSIetako enpresentzat eta profesionalentzat.

Ondoko premia-eremu hauetan kontratatuko da aholkularitza aditua, eta LOTEKA kontratatuko da:

1. LOTEKA: Aholkularitza-zerbitzua gogoeta estrategikoan eta negozio-ereduan.
2. LOTEKA: Aholkularitza-zerbitzua finantzetan eta marketinean.
3. LOTEKA: Jabetza Intelektualerako aholkularitza-zerbitzua
4. LOTEKA: Trantsizio Digitalerako aholkularitza-zerbitzua
5. LOTEKA: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako aholkularitza-zerbitzua.
6. LOTEKA: Nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzua

1. LOTEKA: Aholkularitza-zerbitzua gogoeta estrategikoan eta negozio-ereduan.
  - o Euskadiko KSIetako enpresa eta profesionalei negozio bakoitzaren strategiari buruz gogoeta egiten laguntzea (BDCCren erremintak, besteak beste, eta espezializazio-maila batean, bere negozioaren DNA bezala landuz).
  - o Euskadiko KSIetako enpresa eta profesionalei negozio berri bat abiarazteari buruz gogoeta egiten laguntzea edo alde aurretik badagoen negozio baten eraldaketan lan egitea (BDCCren Business Model Canvas, Value Proposition Canvas eta Business Plan erremintak, besteak beste, eta espezializazio-maila batean, landuz).
  - o Euskadiko KSIetako enpresak edo profesionalak gogoeta estrategikoaren eta negozio-ereduaren arloan izan ditzakeen zalantza edo kontsulta zehatzei erantzutea.
  - o Aholkularitza ematea gogoeta estrategikoaren eta negozio-ereduaren arloan BDCCri.

## 2. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua finantzetan eta marketinean.

- o Euskadiko KSIetako enpresa eta profesionalei marketin mixa lantzen laguntzea: produktu-jarduerarekin lotutako oinarrizko aldagaiak, prezioa, sustapena eta banaketa aztertzen diren negozioaren barne-estrategia (marketin-arloko BDCCren erremintak, besteak beste, eta espezializazio-maila batean, landuz).
- o KSIetako enpresei eta profesionalei beren finantza-laguntza hobetzen laguntzea. Laguntza beren finantza-ekipoetan sortzen diren zalantza edo zailtasun guztietan (finantza-arloko BDCCren erremintak, besteak beste, eta espezializazio-maila batean, landuz).
- o Euskadiko KSIetako enpresak edo profesionalak marketinaren edota finantzen arloan izan ditzakeen zalantza edo kontsulta zehatzei erantzutea.
- o Marketinaren eta finantzen arloko aholkularitza teknikoa BDCCri.

## 3. LOTEA: Jabetza Intelektualerako aholkularitza-zerbitzua:

- o Euskadiko KSIetako enpresei eta profesionalei laguntzea beren aktibo ukiezinak zein hirugarrenenak detektatzen, jabetza intelektualeko eskubideak behar bezala kudeatzeko (jabetza intelektualaren arloko BDCCren erremintak, besteak beste, eta espezializazio-maila batean, landuz).
- o Erakunde horiek gidatzea ukiezinen estrategia prestatzen eta ezartzen.
- o Jabetza intelektualekin lotutako kontsulta guztiei erantzutea eta erakundeen negozioa garatzeko funtsezkoak diren beste zalantza juridiko batzuei ere erantzutea (adibidez, kontratuak berrikustea, kontratuen arloko BDCCren erremintak, besteak beste, eta espezializazio-maila batean, landuz: kontratu-plantillak eta checklist zerrendak kontratuak egiteko).
- o Jabetza intelektualaren arloko aholkularitza teknikoa BDCCri.

#### 4. LOTEA: Trantsizio Digitalerako aholkularitza-zerbitzua:

- o Euskadiko KSIetako enpresei eta profesionali laguntzea trantsizio digitalaren arloan duten egoera diagnostikatzen.
- o Erakunde horiek gidatzea beren negozioak arrakasta izan dezan ondoen egokitzen zaizkien teknologietan.
- o Teknologia horiek ezartzeko laguntza eta aholkularitza.
- o Euskadiko KSIetako enpresak edo profesionalak trantsizio digitalaren arloan izan ditzakeen zalantza edo kontsulta zehatzei erantzutea.
- o Trantsizio digitalaren arloko aholkularitza teknikoa BDCCri.

#### 5. LOTEA: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko aholkularitza-zerbitzua erakundeetan:

- o EAEko KSIetako enpresei eta profesionali laguntzea beren enpresan edo negozioan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zer egoeratan dauden diagnostikatzen, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.
- o Landu nahi diren hobetzeko eremuak edo eraldatze-erronkak azaleraatzea.
- o Euskadiko KSIetako enpresari edo profesionalari laguntzea bere erakundeetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana prestatzen.
- o Euskadiko KSIetako enpresak edo profesionalak enpresetako berdintasunaren arloan izan ditzakeen zalantza edo kontsulta zehatzei erantzutea.
- o Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko aholkularitza teknikoa BDCCri.

#### 6. LOTEA: Nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzua

- o EAEko KSIetako enpresei eta profesionali nazioartekotzearen berezitasunak, ezaugarriak eta oztopoak ezagutzen laguntzea.
- o Erakundearen diagnostikoaren jarraipena egitea nazioartekotzeko eta horretarako gaitasunak hobetzeko orduan.
- o Enpresei laguntza ematea aukeratutako edozein nazioartekotze-bidetan (bide horiek aukeratzeko aholkuak emateko aukerarekin).

- Euskadiko KSIetako enpresak edo profesionalak nazioartekotzearen arloan izan ditzakeen zalantza edo kontsulta zehatzei erantzutea.
- Nazioartekotzearen arloko aholkularitza teknikoa BDCCri.

### 3. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Nahitaezkoa izango da:

- a) Laneko eta Gizarte Segurantzako araudia betetzea:

Esleipendunak, kontratua betetzean, Europar Batasuneko eta estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo estatua lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako gizarte- edo lan-alorreko betebeharrak aplikagarriak beteko ditu.

- b) Hizkuntza-baldintzak:

Esleipendunek, taldearen barruan, C1 mailako hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute. Zehazki, zerbitzuko hartzaileekin komunikatu behar duen pertsona izango da profil hori ezinbestean egiaztatu beharko duena, baldin eta hura eta zerbitzuaren arduraduna pertsona bera ez badira.

BDCCren eta esleipendunen arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean. Kontratua betetzeari dagokionez, honako hau da euskara "normalki" erabiltzea:

- Ahozko komunikazioetan, kontratua betetzeko eginkizunetan BDCCra jotzen duten langile euskaldunek euskaraz egingo dute hasiera batean. Botere esleitzaila kontratuaren gauzatzeari atxikitako langileei euskaraz zuzentzen bazaie, eta langile horiek euskaraz behar adinako ezagutzak ez badituzte, kontratua gauzatzeko ardua duen enpresak berehala jarri beharko ditu beharrezko bitartekoak edo euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak, kontratua gauzatzearen ondorioz BDCCrekiko harremana euskaraz izateko.
- Idazki bidezko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, igorleak euskara soilik aukeratu ezean.



## 4. METODOLOGIA

### 4.1. Oinarrizko informazioa:

Zerbitzu hau eskuratzen duen Euskadiko KSIetako enpresa edo profesional bakoitzak **10 orduko poltsa izango du urtean**, premia-eremu jakin batekin lotutako **proiektu zehatz bat lantzeko**. Hau da, KSIetako enpresa edo profesional batek erronka bati heldu ahal izango dio (adibidez, jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketa, nazioartekotzea, trantsizio digitala edo berdintasuna bere erakundeetan), 10 ordurekin, erronka hori aditu jakin batekin lantzeko. Gainera, sorta bakoitzaren enpresa esleipendunek aholkularitza-zerbitzua eskainiko diote BDCCri lizitazioaren arloan, gehienez ere 20 orduz, betiere BDCCk kontsultak egiten baditu.

BDCC taldeak (GAIA KLUSTERRA) 1. mailan (oinarrizko aholkularitza) lehenetsiko du landu beharreko premia-eremua. Hau da, aholkularitza espezializatuko zerbitzua erabili ahal izateko, KSIetako enpresak edo profesionalak aldeztu aurretik jaso beharko du BDCC taldeak (GAIA KLUSTERRA) eskainitako oinarrizko aholkularitza-zerbitzua.

### 4.2. Harremanetarako:

BDCC taldearen bidez (GAIA KLUSTERRA) egingo da enpresa edo profesionalaren eta adituaren arteko harremana. BDCC taldeak aholkularitza espezializatu hori erabili ahalko duten Euskadiko KSIetako enpresa eta profesionalak hautatuko ditu. BDCC taldeak jarriko du harremanetan enpresa edo profesionala adituarekin, lehenetsitako premia-eremua lantzeko. Aditu bakoitzak 10 ordu izango ditu enpresa edo profesional bakoitzari arreta emateko eta aholkularitza osoa eskaintzeko.

### 4.3. Adituen taldea eta BDCC taldea (GAIA KLUSTERRA)

BDCC taldeak hilean behin online bilerak egingo ditu aholkularitza espezializatua ematen duten pertsonen taldearekin, erronka komunak partekatzeko eta zerbitzuaren prozedura hobetzeko eta arintzeko.

Karpeta partekatu bat izango da, eta bertan, aholkatutako enpresa bakoitzari buruzko dokumentazioa eta bere edukia igo ahal izango ditu aditu bakoitzak, aholkatutako enpresa bakoitzaren informazioarekin.

Enpresa esleipendunek konfidentzialtasun-akordio espezifikoak sinatu beharko dute lizitazioa onartuzat emateko eta proiektuarekin hasteko.

#### 4.4. Autodiagnostikoa:

Aholkularitza espezializatuko zerbitzuan lan egingo duen premia-eremuaren online autodiagnostiko bat egina izango du Euskadiko KSIetako enpresak edo profesionalak. Beraz, aditu bakoitzak alde aurretik jakin ahal izango du lagunduko dion enpresaren edo profesionalaren autodiagnostikoa. Aditu bakoitzak ere enpresaren edo profesionalaren egoera diagnostikatuko du aholkularitza espezializatuan, premia-eremua hobetzeko eta ahalik eta hobekien lan egiteko.

#### 4.5. Bilerak

BDCC taldeak (GAIA KLUSTERRA) kontaktua egin ondoren, adituak bakarka itxiko ditu bilerak enpresa edo profesional bakoitzarekin. Bilerak online edo aurrez aurre egin daitezke 10 orduko aholkularitza aditua emateko enpresa bakoitzari.

#### 4.6. Txostena:

Enpresa edo profesional bakoitzak urtean 10 orduko aholkularitza jaso ahal izango du. Aholkularitzako 10 orduak bete ondoren, adituak BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) helaraziko dio landutakoa, honako formatu honetan:

- ➔ Aholkularitza espezializatua ematen duten pertsonen taldearekin partekatu beharreko dokumentua eguneratu, arreta emandako enpresa eta/edo profesional guztiekin.
- ➔ Enpresa edo profesional bakoitzak BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) jakinarazi beharreko edukia:
  1. SARRERA-DATA
  2. ENPRESA
  3. KONTAKTUA ENPRESAN
  4. POSTA ELEKTRONIKOA
  5. ENPRESAREN TELEFONOA
  6. PROBINTZIA
  7. KSI AZPISEKTOREA
  8. GAIA

9. ZERBITZUAREN EDO LAGUNTZAREN DESKRIBAPENA
10. ARRETA EMAN DUEN PERTSONA ADITUA
11. PROIEKTUAREN AMAIERA-DATA
12. DEDIKAZIO-ORDUAK
13. ARRETA-HIZKUNTZA
14. ZERBITZUA JASO DUEN PERTSONAREN ZERBITZUA
15. IRUZKINAK

#### 4.7. Ebaluazioa

10 orduko aholkularitza espezializatuko prozesua amaitutakoan, KSIetako enpresak edo profesionalak zerbitzua ebaluatuko du.

## 5. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Proposamenean zehaztu egin beharko dira zerbitzu bakoitzari ekiteko eskuragarri dauden baliabideak, baliabide teknikoak nahiz giza baliabideak.

Lizitatzailleak pertsona bat izendatu beharko du espresuki, eta pertsona hori izango da zerbitzuaren arduradun nagusia. Honako eginkizun eta erantzukizun nagusi hauek izango ditu<sup>1</sup>:

BDCC taldearekin (GAIA KLUSTERRA) solaskidea eta kolaboratzailea izango da.
Enpresa edo profesional bakoitzari aholkularitza espezializatua eskainiko dio. Nolanahi ere, taldeko beste pertsona bat gehiago egon daiteke bileretan.
Gainerako adituekin batera egiten diren bileretara joango da.
Proiektuaren aurrerapenaren eta garapenaren berri emango du eta etengabe eguneratuko du aholkularitza jaso duten KSIetako enpresei edo profesionali buruzko informazioa.
Zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egingo du, gauzatzeko epeak bermatuz.
Prestasuna

Lizitatzailleak izendatutako pertsonak:

- urte osoan emango du zerbitzua, eta bilerak itxi ahal izango ditu aholkatu beharreko KSIetako enpresaren edo profesionalaren prestasunaren arabera.
- eta ziurtatuko du aholkularitza espezializatuko 10 orduak eskaini ahal izango dizkiola deribatutako KSIetako enpresa edo profesional bakoitzari.

Hautatutako pertsonaren *curriculum vitae*-a erantsi beharko da, esperientzia eta enpresa esleipendunarekiko kontratu-lotura barne. Profil honetarako, enpresei eta profesionali, eta bereziki KSIei, aholkularitza aditua ematen esperientzia duen pertsona nahi da. **C1 maila egiaztatuta duen euskara eskakizuna aurkeztu beharko da.**

Kontratua gauzatzen den bitartean adierazitako pertsona aditu hori esperientzia eta profil bereko beste batek ordeztzen badu, BDCCri aurrerapen nahikoarekin jakinarazi behar zaio onartu dezan, onarpen hori beharrezkoa izango baita berritze edo ordezte horrek kontratuaren suntsiarazpena eragin ez dezan.

---

<sup>1</sup>Kontratuaren arduraduna eta solaskidea ez dira pertsona bera izango.

Behar diren KSIetako enpresei eta profesionali arreta emateko (litzazio honen aurrekontuaren arabera) prest egotea balioetsiko da, baita kasuan kasuko arloan diagnostikorako tresnak erabiltzen esperientzia izatea ere. Antzeko prozesuetan parte hartu izanaren erreferentziak eta esperientziak ere balioetsiko dira, tokikoak eta/edo nazioarteko erreferentziak izan.

## 6. GAUZATZEKO EPEA

Gauzatzeko epea kontratua sinatzen denetik 2024ko abenduaren 31 artekoa izango da.

## 7. ZERBITZUAREN JARRAIPENA

Bereziki garrantzitsuak izango dira emandako zerbitzuaren jarraipena egiteko tresnak eta BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) aholkularitza jaso duten KSIetako enpresen eta profesionalen berri ematea (denbora errealean eguneratua), baldintza-agiri honen *Txostena* puntuan adierazitakoaren arabera.

## 8. KONFIDENTZIALTASUNA

Pertsona eta enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du BDCC taldeak ematen dion informazio guztia (aholkularitza jasotzen duten KSIetako enpresei eta profesionalei buruzko informazio guztia barne), edo beste iturri batzuetatik jasotakoa, isilean gordetzeko, eta ez dio inolako pertsona fisiko edo juridikori emango, salbuespen bakarra lanen ardura duten plantillako langileak izanik, hirugarrenek ez baitute informazio horren berri izan behar, ezta arduragabekeriagatik ere. Konpromisoa hartzen du, halaber, BDCC taldeak (GAIA KLUSTERRA) ematen dion informazioa, edo beste iturri batzuetatik jasotakoa, ez erreproduzitzeko, eraldatzeko eta, oro har, erabiltzeko, kontratatutako zerbitzuak behar bezala betetzeko ez bada.

## 9. BALDINTZA EKONOMIKOAK

Deskribatutakoaren arabera, honako hauek osatzen dute aurrekontua eta hari lotutako ziurtagiria:

- Hona hemen eskaera honetarako gehieneko aurrekontua:
  - 1. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua gogoeta estrategikoan eta negozio-ereduan.

25.000€: 25 enpresari emango zaie arreta (10 ordu enpresa bakoitzeko). Era berean, BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) berriazko aholkularitza emango zaio BDCCren taldeari sortu ahalko zaion estrategiari eta negozio-ereduari dagokionez beharrezkoa den guztian, 20 orduz. BDCCk agian ez du kontsumituko ordu kopuru hori, bere beharren arabera.

- 2. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua finantzetan eta marketinean.

25.000€: 25 enpresari emango zaie arreta (10 ordu enpresa bakoitzeko). Era berean, BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) berriazko aholkularitza emango zaio BDCCren finantzako eta marketineko kudeaketan, 20 orduz. BDCCk agian ez du kontsumituko ordu kopuru hori, bere beharren arabera.

- 3. LOTEA: Jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzeko zerbitzua:

25.000€: 25 enpresari emango zaie arreta (10 ordu enpresa bakoitzeko). Era berean, BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) berriazko aholkularitza emango zaio BDCCren jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketan, 20 orduz. BDCCk agian ez du

kontsumituko ordu kopuru hori, bere beharren arabera.

- o 4. LOTEA: Trantsizio digitalaren zerbitzua:

20.000€: 20 enpresari emango zaie arreta (10 ordu enpresa bakoitzeko). Era berean, BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) berariazko aholkularitza emango zaio BDCCren trantsizio digitalaren arloan, 20 orduz. BDCCk agian ez du kontsumituko ordu kopuru hori, bere beharren arabera.

- o 5. LOTEA: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren zerbitzua:

20.000€: 20 enpresari emango zaie arreta (10 ordu enpresa bakoitzeko). Era berean, BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) berariazko aholkularitza emango zaio BDCCren emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, 20 orduz. BDCCk agian ez du kontsumituko ordu kopuru hori, bere beharren arabera.

- o 6. LOTEA: Nazioartekotze-zerbitzua:

20.000€: 20 enpresari emango zaie arreta (10 ordu enpresa bakoitzeko). Era berean, BDCC taldeari (GAIA KLUSTERRA) berariazko aholkularitza emango zaio BDCCren nazioartekotzearen arloan, 20 orduz. BDCCk agian ez du kontsumituko ordu kopuru hori, bere beharren arabera.

- Aurkeztutako eskaintzek ordainsarien eta egin beharreko gastuen zenbateko osoa adierazi beharko dute, dagokion BEZa sartu gabe.
- GAIA KLUSTERRAK baztertu ahal izango ditu neurritz kanpokotzat edo ausartegitzat jotzen diren eskaintza ekonomikoak, karatulako 16. klausulan zehaztutako irizpideari jarraituz.

Aurrekoarekin bat, proiektuaren gauzatze-faserako ziurtagiria egingo da, eta bi zatitan ordainduko da: % 50 proiektuaren hasieran eta % 50 gauzatze-epaia amaitzean.

Karatularen 27. klausulan ezarritakoaren arabera, ordainsari finko eta aldakorren konbinazio baten bidez aurreikusten da eskainitako



aurrekontuaren ordainketa, aurrekontuaren % 80 finko bezala ezarriz eta gainerako % 20a zerbitzua gauzatzearen arabera (aholkularitzen % 80 gainditzea).

## 10. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak hornitzailea aukeratzeko orduan kontuan hartuko diren elementuak dira, eta BDCC taldearen (GAIA KLUSTERRA) beharrak hobekien asetzen dituzten eskaintzak identifikatzeko dira. Eskaintzak Otik 100 puntura bitartean balioetsiko dira, atal bakoitzean aurrez ezarritako irizpideak eta haien puntuazioa kontuan hartuta. Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa 100 puntu dira.

Puntuak, bai subjektiboak bai objektiboak, karatulako 15. eta 16. klausuletan ezarritako haztapen-irizpideei jarraikiz emango dira.

## 11. ESKAINTZARI BURUZKO KONTSULTAK

Eskaintza teknikoari edo agiriaren edukiari buruzko edozein argibide nahi izanez gero, idatzi [barrio@gaia.es](mailto:barrio@gaia.es) eta [vidorreta@gaia.es](mailto:vidorreta@gaia.es) helbideetara edo deitu (+34) 627 671 552 telefono-zenbakira.